

**PROGRAMAZIO LABURTUA**

Ikastetxe Izena	IES ANGELA FIGUERA BHI						Ikasturtea:	2015-2016	
Arloa Gaia	INFORMATIKA						Data:	2015-10-30	
Etap Maila	1. DBH	2. DBH	3. DBH	4. DBH	X	1. Batxil.	2. Batxil.	Zikloak	

1	Arloaren gutxiengo helburuak gaitasun moduan adierazita
---	--

GAITASUNAK

- G1. Zientzia-teknologia eta osasun kulturarako gaitasuna**
- G2. Ikasten ikasteko gaitasuna**
- G3. Matematikarako hizkuntza komunikaziorako**
- G4. Informazioa tratatzeko eta TIC erabiltzeko gaitasuna**
- G5. Gizarterako eta hiritartasunerako gaitasuna**
- G6. Giza eta arte kulturarako**
- G7. Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna**
- G8. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna**

HELBURUAK

1. Oinarrizko mantentze-lan teknikoak aplikatzea ordenagailuak lokalki eta sarean hobeto funtziona dezan- eta, gainera, ergonomiaren eta segurtasunaren alderdi nagusiak identifikatzea eta balioestea, ohitura onak bultzatzeko (G1, G2, G4, G7, G8)
2. Aplikazioak instalatzea eta konfiguratzea, eta segurtasun aktiboa eta pasiboa bultzatzea, bai sistema informatikoak elkarloturik eta Internetera zabalik egon daitezen, bai datu pertsonalak behar bezala babesturik egon daitezen. (G1, G2, G4, G7)
3. Zerbitzu telematiko egokiak erabiliz gizarte-beharrak asetzea —prestakuntza, aisia, lan-munduratzeko, administrazioa, osasuna, merkataritza...—, eta ohiko mantentze-lanak egitea. (G1, G2, G4, G5)
4. Gailu mugikorak eta hari gabekoak edo kabledunak elkarri konektatzea, informazioa eta datuak trukatzeko. (G1, G2, G4)
5. Argazkiak atera ondoren edizio digitala egitea eta ordenagailuz sortutako irudietatik desberdintzea, eta erabiliko diren inguruaren arabera beren ezaugarriak aldatzea. (G1, G2, G3, G4, G5, G6, G7)
6. Software espezifikoak erabiliz audiodun bideo zatiak kapturatzea, editatzea eta muntatzea, ikus-entzunezko mezuak sortzeko. (G1, G2, G3, G4, G5, G6, G7)
7. Hitzaldia osatzeko aurkezpenak diseinatzea eta egitea, ideiak eta proiektuak erakusteko. (G1, G7, G8)
8. Sarerako edukiak sortzea —edozein nabigatzailetan argitaratzeko orduan erabilerraztasun-estandarrik jarraituz— elkartruckerako baliabideekin (inprimakiak, inkestak, egunerokoak, etab.) eta multimedia-elementuak txertatzea laguntzen duten formatuekin; horrez gainera, beste erabiltzaileen eskura nola jarriko diren erabakitzea, kontuz ibiliz datu pertsonalak babesteko (G1, G4, G5, G7, G8)
9. Interneten talde-laneko aplikazioak erabiliz, gogotsu parte hartzea gizarte-sare birtualetan informazioa igortzen eta jasotzen, ekimen bateratuak bultzatuz, errespetatuz eta lagunduz, talde-ekoizpenak sortzeko. (G1, G2, G3, G7, G8)
10. Sarean dauden baliabideak bilatu eta aukeratu ondoren norberaren lanean erabiltzea, softwarea eta edukia banatzeko ereduak ezagutzeko, jabetza intelektuala errespetatuz, eta erabilpena baimentzen duten iturrietara joz. (G1, G2, G5, G7)
11. Gela barruan elkar bizitza eta tolerantzia lantzea kultura ezberdinak errespetatzeko eta genero rolen arazoa baztertzeko. (G6)



Edukien denbora-tarteak					2
29	1. Ebaluazioa	34	2. Ebluazioa	35	3. Ebaluazioa
4	Word testu prozesadorea	30	Irudi digitala: <ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptuak • Irudiak eraldatzeko programa: GIMP 	1	Doinu digitala Kontzeptuak
4	Drive: <ul style="list-style-type: none"> • Dokumentuak docs • Word dokumentuak gordeketa 	4	Google + <ul style="list-style-type: none"> • Sare soziala sorrera • Argazkiak partkatzea • Argazkiak sitean kokapena 	8	Doinu digitala tratatzeko programa: audacity
2	Sites: <ul style="list-style-type: none"> • Sortu orri desberdinak • sitean docs eta word dokumentuak gordeketa 			2	Doinu digitala sitean kokapena
10	Sistema eragilea <ul style="list-style-type: none"> • Hardware eta software 			1	Bideo Digitala: Kontzeptuak
9	Sareak: <ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptuak eta osagaiak 			1	Bideo digitala Interneten: Youtube
				12	Bideo ediziorako programa: Windows Movie Maker Youtuben bideoak argitalepena
				10	Web orrien diseinua: Siteak



Irakats prozesuan erabiltzen den metodologia

3

- Irakasleak SITE bat prestatuko du ikasleekin lan egiteko. Bertan atal bat egongo da teoria jartzeko eta ikasle bakoitzak bere orriak izango ditu norberaren koaderno moduan erabiltzeko
- Ikasleak egiten dituen lan gehienak docs moduan gordeko ditu eta irakaslearekin partekatuko
- ditu. Docs moduan gordetzen ez diren lanak, sareko norberaren karpeta goredeko ditu
- Irakasleak Google+, Picasa, dropbox, youtube eta Interneten aurkizen diren baliabideak erabiliko ditu irudiak, doinuak eta bideoak gordetzeko
- Saiok informatika gelan izango dira.
- Gai guztiak ebaluatzeko bakarkako lanen bidez izango dira. Hauek epe muga izango dute entregatzeko. Epez kanpo entregatzen badira, ariketen nota penalizazioa izango dute. Ez badira entregatzen, “ez entregatuzat” hartuko dira.
- Gai teorikoetan azterketa egongo da.
- 1 ebaluazioa teorikoa denez, gainditzen ez dutenek bigarren ebaluazioa errekuperazio azterketa izango dute. Beste ebaluazioetan, lanak ez auekezteagatik suspendituz gero, ikasleak gainditzeko lan guztiak entregatu beharko ditu. Lan hauek ez dira ikastorduan barruan egingo

Aniztasuna tratatzeko neurriek unean uneko premiei erantzun beharko diete, ikasleen motibazio eta ahalmena haintzat hartuta, ingurune inklusiboan ikasteko. Hiru motatako kasuistika izan dezakegu ikasgelan:

- Banakako arreta berezia edo egokitapena eskatzen duten ikasleek.
- Berandu batu direnen edo ikastetxeko hizkuntza ezagutzen ez dutenen ikasleen eskolatzea (etorkinak kasu).
- Gaitasun intelektual altuko ikasleen heziketa.

Ikasle hauentzako proposamen malguak beharko ditugu, gutxieneko minimoak eskuratzeko edo eta aukera anitzak eman ahal izateko. Besteak beste:

1. Metodologia anitzak (estilotan zein mailatan).
2. Ariketa ezberdinak (indartze, sakontze edo zabaltze ariketak)
3. Mota askotako jarduerak (IKTak barne, edozein euskarritan)
4. Talde-banaketa malguak eta erritmo desberdinak. Lan kooperatiboa
5. Banakako egokitapen kurrikularrak

Baliabideak

4

Testu liburua

Editoriala

INFORMATIKA 4 ESO

ANAYA/HARITZA

Gmail: Ikasleek kontu bana dute irakaslearekin mezuak partekatzeko eta Drive erabiltzeko

Drive: Dokumentuak eta lanak gordetzeko

SITEA: Ikasgai osoko [sitea](https://sites.google.com/a/angelafiguerainstitutua.com/informatika-4/): <https://sites.google.com/a/angelafiguerainstitutua.com/informatika-4/>

Irudiak tratatzeko programa: [GIMP](#)

Google + irudiak partekatzeko

Audioa eraldatzeko programa: [AUDACITY](#)

Bideoa eraldatzeko programa: Windows Movie Maker

Bideoak gordetzeko web orrialdea: Youtube



5	EBALUAZIOA: TRESNAK,EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK	
5.1	EBALUAZIO PARTZIALA	
Ebaluazio tresna	Ebaluazio irizpidea	%
1. ATALA: IKASLEREN EKOIZPENA		20
Idatzizkoa Ariketak Banakako lanak	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa guztiak gorde eta partekatu • Ariketen zehaztasuna • Epe barruan entregatu • Edukiak ondo egitaratu (eduki zehatzak) eta landu (ondo aurkeztuak eta txukunak) • Informatika hiztegia egoki erabili 	
2. ATALA: FROGAK ETA LANAK		70
Frogak	Kontzeptuak bereganatu eta ulertu	60
Lanak	Lanak ondo egitaratuta Ordenadoreko eta Interneteko informazioa bilatu	10
2. eta 3.Ebaluazioetan ez da frogarik egigo; beraz, honen ataleko porzentaia IKASLEAREN EKOIZPENA atalaren barruan esleituko da		
3. ATALA. BEHAKETA SISTEMA-EGUNEROKOA		10
Kontrol orria	Klasera puntualtasunaz etorri (Ez etortzeak, berandu (-))	3
	Eskola orduetan lan egitea (Lanik ez egitea (-))	3
	Portaera aproposoa izan (kaleratzea edo parteak (-))	2
	Informatika materiala errespetatu eta zaindu	2
Ebaluazioaren Nota	Gaunditzeko aurreko ataletako notaren gehiketa 50 izan behar da	
5.2	AMAIERARAKO OHIKO EBALUAZIOA	
Ebaluazio tresna	Ebaluazio irizpide	Kalifikazio irizpideak
Ebaluazioa ataletan onartutakoak	Ebaluazioa ataletan onartutakoak	Ikasgaiaren azken nota, 3 ebaluazio noten batz bestekoa egiten lortuko da
Berreskurapen eta indartze sistema		6
Ebaluazioa ez bada gaunditzen ikasleak hurrengo ebaluazioan errekupeatzeko froga egin beharko du. Froga ea dauden ebaluaketetan, suspenditu duen ataleko lanak egin beharko ditu		